

HAPOREN ALDAKETA PUNTUALA

DIKE+KOFRADIA

HIZKUNTZA INPAKTUKO
AZTERLANA

ORIOKO UDALA



ORIOKOUDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



1. Atarikoak	2
2. Lege testuingurua	3
3. Ebaluazio prozesua	5
4. Orioko HAPOn aldaketa puntuala: dike+kofradia	9
5. Testuingurua	18
6. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa	30
7. Eragin linguistikoaren intentsitatearen ebaluazioa	32
8. Funtsezko alderdiak	45
9. Ondorioak eta Neurri zuzentzaileak	55
10. Jarraipen Batzordea	59
11. Eranskina	60

2020ko abendua

Orioko udala

UEMA arnasguneak@uema.eus


AZ zelaia.arrantxu@gmail.com Aholkularitza teknikoa



1. ATARIKOAK

Orio Gipuzkoako iparraldearen erdialdean dagoen kostaldeko udalerria da, Urola Kosta eskualdearen baitan. Mugakide ditu Donostia, Usurbil eta Aia. Orioko udalerriko lurraldeak 9,81 km² ditu .

Lan honen helburua Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Dike eta Kofradia eremu eteneko aldaketa puntualak izan dezakeen eragin linguistikoa ebaluatzea da. Nahiz eta euskararen ezagutzak azken urteotan beheranzko joera izan, gaur gaurkoz euskararen arnasmuna da Orio. Hori kontuan hartuta, HAPOn aldaketa puntualak izan ditzaken balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea da egitasmo honen helburu nagusia. Horrez gain, beste helburu hauek ere baditu: euskararen ezagutzan, euskararen erabileran eta euskal hiztun komunitatean egoerari kalterik eginez gero, aurre hartzeko eta murrizteko neurriak hartzea.



2. LEGE TESTUINGURUA

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa

VI. KAPITULUA

PLANEN ETA PROIEKTUEN HIZKUNTZA-INPAKTUA EBALUATZEA

49. artikulua.— Ebaluazioaren helburuak eta printzipioak.

1.— Udalen egoera soziolinguistikoan era negatiboan eragin dezaketen udal-eskumeneko planak onartzeko prozeduran eta proiektuei baimenak edo gaikuntzak emateko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen inpaktua ebaluatuko da, dekretu honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera. Gero, ebaluazio horren ondoriozko neurriak proposatuko dira, kapitulu honetan jasotako baldintzen arabera, egoki irizten bazaie.

2.— Honako hauek dira hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren helburuak:

- a) Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea.
- b) Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.
- c) Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

3.— Honako printzipio hauek izango dira hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren oinarria:

- a) Prebentzioa: udalek, hizkuntza-ikuspegitik ere, aukera onenak baliatuko dituzte planak onartu edo proiektuei baimena edo gaikuntza ematen dietenean, inpaktu kaltegarriak ahalik eta txikiak izan daitezen, eta, behar izanez gero, inpaktu horiek konpentsatzeko.
- b) Planak onartzeko edo proiektuei baimena emateko prozedura substantiboan txertatzea. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-prozedura hasieratik sartuko da plana onartzeko edo proiektuari baimena edo gaikuntza emateko funtsezko prozeduran; eta ebaluazioa amaituko da plana behin betiko onartu edo proiektua behin betiko baimendu aurretik. Horrela, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren emaitzak planetan edota proiektuetan txertatu ahal izango dira. Erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa —Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarrita— behar duten proiektuak direnean, sustatzaileari jakinaraziko zaio udalak egindako hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa, hark ebaluazioan proposatzen diren neurriak abian jar ditzan.
- c) Ebaluazioaren kalitate teknikoa.
- d) Interesdunen eta, oro har, publikoaren parte-hartzea.

e) Prebentzio-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak hizkuntza-inpaktura egokitzea eta hizkuntza-inpaktuaren eta inpaktua minimizatzeko baliabideen arteko proportzionaltasuna zaintzea.

f) Konfidentzialtasuna, bereziki sustatzaileek ematen dituzten datuei dagokienez.

g) Sustatzaile pribatuen laguntzeko betebeharra: haiek sustatutako hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin ahal izateko udalek behar dituzten datuak helarazi beharko dizkiete.

h) Euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea, politika publikoetan hizkuntza-ikuspegia sartuz.

i) Udalen garapen soziala bultzatzea, hizkuntza-eredu jasangarria bermatuz.

50. artikulua.— Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.

1.— Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

a) Planak

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana
- Sektorizatze-plana
- Plangintzako arau subsidiarioak
- Plan partzialak
- Hiri-antolamenduko plan bereziak
- Turismo-planak

b) Proiektuak

- Merkataritza-gune handiak eraikitzeako proiektuak
- Industria-guneak eta teknologia-parkeak eraikitzeako proiektuak

2.— Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnaguneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.

3. EBALUAZIO PROZESUA

METODOLOGIA

Azterlanaren prozesuak bost atal izan ditu:

- Irismen dokumentua
- Ebaluazio Batzordearen izendapena
- Egitasmoa eta garatuko den tokiaren testuingurua aztertu
- Hizkuntza Inpaktuaren Azterlana egin
- Jendaurreko erakusketa

Prozesuaren emaitza bi dokumentu nagusi dira:

- Hizkuntza Inpaktuaren Azterlana
- Hizkuntza eraginaren ebaluazioari buruzko txostena

EBALUAZIO BATZORDEA

Indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta Ebaluazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz. Honakoek osatu dute batzorde hori:

- **Ebaluazio Batzordea** Ainara Munduate (Hirigintza zinegotzia), Pilar Azurmendi (Udal Arkitektoa), Jabier Zabaleta (Orioko Udaleko euskara teknikaria), Imanol Haro (UEMA) eta Arritxu Zelaia (Aholkularitza teknikoa AZ).

Hauek izan dira Ebaluazio Batzordearen zereginak:

- Kronograma zehaztu
- Galdetegi laburra bete
- Prozedura zehaztu
- Datuen azterketa eta diagnostikoa partekatu
- Egoera eta izan dezaken eragina neurtu
- Neurri zuzentzaileak proposatu

IRISMEN DOKUMENTUA

Plana edo proiektua ezartzeko edo onartzeko prozedura substantiboan sustatzaileak organo substantiboan, prozedura abiatzeaz batera, hizkuntza-ebaluazioari buruzko irismen dokumentua eskatu dio hizkuntza-eraginaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoari. Horrekin batera, planaren edota proiektuaren azalpen xehea biltzen duen dokumentua aurkeztu du.

Irismen dokumentuaren ebazpena Hizkuntza Inpaktuaren azterlana egitea beharrezkoa izan dela izan da eta ondorengo urratsak bete dira.

EGITASMOA ETA GARATUKO DEN TOKIAREN TESTUINGURUA AZTERTU

Eragin linguistikoaren balorazioak jaso aurretik, eragin eremuari dagokion informazio garrantzitsua aztertu da. Prozesu horretan, kontuan hartzekoak diren datuak honakoak izan dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak.

Lehenengo fasean Talde Teknikoak hartu du parte batik bat. Honakoak izan dira zereginak: proiektuaren inguruko eta Oriko informazioa eskuratzea. Oinarrizko datu bilketa, zeharkako iturrietatik datu bilketa, dokumentuak, estatistikak.

Iturri hauek erabili dira: Eustat, INE, Euskal Herriko Adierazle Linguistikoen Sistemaren Informazioa (EAS), Soziolinguistika Klusterra, UEMA (Azterketa Sozioekonomikoa eta Soziolinguistikoa) eta Oriko Udaleko datuak (Errolda), 2015ean HAPO berrira begira egindako ELE lana (Oriko udala, Proiekta Urbes, UEMA, Elhuyar aholkularitza) Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa Orion txostena. (Siadeco eta Oriko Udala 2018), Oriko Euskararen kale erabileraren neurketa (Oriko udala) eta Karkara aldizkaria.

HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA

Irismen dokumentuan Oriko HAPOko aldaketa puntualean aurreikusitako esku-hartzeek egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izango duela ondorioztatu da eta eragin horren neurria kalkulatu da azterlanaren bidez.

Azterlanaren egitura:

I. ELE GALDETEGIA

Galdetegi honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten laguntzen du.

Galdetegi honen helburua eragin linguistikoaren nolakotasuna aztertzea eta eragina jasan dezaketen alderdiak identifikatzea da.

Hizkuntzari estu lotutako aldagai hauen inguruan galdetu da:

- Komunitatearen kultura eta gizarte bizitza
- Biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutza

- Biztanleen/bisitarien euskararen erabilera
- Jardueren/zerbitzuen komunikazioa
- Eragin eremuaren hizkuntza-paisaia
- Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza-erabilera

II FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO GALDETEGIA

Edozein proiektu edota jarduerak jaso beharreko funtsezko alderdiak biltzen dituen galdetegia da. Galdetegiaren bidez, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu da. Horri esker, neurrien zerrenda egin ahal izan da, bukaerako txostenean kontuan har daitezen.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

- Proiektuaren/jardueraren izaerari lotutakoak: Proiektua edo jardueraren izaera bera moldatzea edota osatzea, kaltea murrizteko.
- Proiektuaren/jardueraren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak: Proiektua aurreikusi baino tamaina txikiagokoa egitea, edota aurreikusitakoa baino gehiago luzatzea denboran bere exekuzioa.
- Proiektuaren/jardueraren lekukotzeari lotutakoak: Proiektua edo jarduera garatzea aurreikusitako lekuan beharrean, beste lekuren batean garatzea.
- Proiektua/jarduera garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak: Proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoa, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezartzea.
- Proiektuaren/jardueraren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak): Garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murriztea bere baitan bestelako jarduera edo proiektu osagarriak aurreikustea.

Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude:

1. Etxebizitza
2. Jarduera ekonomikoa, enplegua
3. Ekipamenduak
4. Espazio libreak
5. Jarduera soziokulturala
6. Hizkuntza irizpideei eta jarduera osagarri/aringarriei lotutako alderdiak

III. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa eginda, azaldu diren eragin posible horiei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua da honakoa.

III. JENDAURREAN AURKEZTEA

Txostenaren erredakzioan talde teknikoak hartu du parte eta Ebaluazio Batzordearekin partekatu da.

Ebaluazio Batzordeak egindako lana jendaurrean aurkeztu da.

HIZKUNTZA-ERAGINAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin ondoren osatuko den txostena da. Hor, besteak beste, hauek jaso dira: proiektu edo planaren deskribapena, prozeduran izandako izapideen laburpenak, hizkuntza-inpaktuaren azterlanaren laburpena, neurri zuzentzaileak, jarraipen sistema...

4. ORIOKO HAPOREN ALDAKETA PUNTUALA: DIKE+KOFRADIA

Orioko HAPOREn aldaketa puntual hiri-lurzoru ez-finkatukoenerako eremu etena eratzen du, nagusiki bizitegi-erabilerakoa Dikeko eraikuntza-programan gauzatzen da eta Kofradiako orubea ekipamendu publiko eta pribaturako lurzoru gisa kalifikatuta geratzen da.

KOFRADIA

ANTOLAMENDU XEHATUA

Kofradia azpierzemuan eraikin berri bat egin behar da antzinako Kofradia zegoen tokian. Kofradiako lurzatiaren erabilera, antolamendu berrian, zuzkidura publikoarena (tokiko sistema) izango da batez ere, 1.500 m² (t) ingururekin, eta, hirigintza-estandarrek betetzeko eta 500 m² (t) Kofradiarako ekipamendu pribaturako erabiliko dira, kostalderi buruzko araudiarekin bateragarriak diren erabilerak sartzeko ikuspegiarekin.

IRIZPIDEAK

Antolamendu horren irizpideak honako hauek dira:

- Eraikin berriak hiri-erreferentzia izaten jarraitu beharko du hiri-ingurunean eta itsasadarrerantz, bere kokapena, esanahia eta adierazgarritasuna kontuan hartuta, bai hiri-paisaia, bai Orioko itsas fatxadaren.
- Ekipamendu publiko eta pribaturako erabilera bateragarriak izango ditu
- Portuko sistema orokorrarekin harreman adostua izateko, behe-solairuan ahalik eta okupazio handiena izateko eta irekiera handiagoa izateko gehieneko lerroakadurak planteatzen dira eta ibilgailu-trafikora zabalik atzeko kalea.
- Lurpeko azpiegituretako obrekin koordinatuko da, eta, bereziki saneamendukoak.

MUGAKETA

Kofradia azpierzemua hiri-ingurune finkatu batean dago mugatuta. Kofradia eraikin zaharraren orubearen lurzoruak hartzen ditu (1924koa zen eta duela gutxi eraitsi da), bai eta lerroakadurak aldatzeko aukera ematen duten haren inguruko beste batzuk ere. Muga hauek ditu: iparraldean, Kaia kalea, eta altzari-fabrika eta Leunda eraikina; hegoaldean, portuko kaia itsasadarrerantz; mendebaldean, Itsas Etxea eraikina; eta Talleres Arostegi eraikina. 840 m²-ko azalera mugatzen da Kofradia azpierzemurako; horietatik, sistema orokorrekoak 665 m² dira, Kofradiako eraikin zaharraren okupazioari dagozkionak; horietatik 175 m² (eraikinaren ataripe zaharra) Portu Sistema Orokorrerako lagatzekoak dira, eta gainerakoa, 476 m², Kofradiako eraikinaren lurzatiaren zati pribatuari dagozkie. Egungo jabari publikoaren 189 m²-ko okupazioak osatzen du mugaketa.

ANTOLAMENDUA

Eraikin berriak Kofradian dituen inguruko espazio libreekin duen harremanaren arabera, orube eta eraikin berrirako planteatutako lerrokadurek, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzarekin adostuta eta dagozkion egiaztapen topografikoak egin ondoren, portu-jabariaren mugaketa hartzen dute hegoalderako eta mendebalderako gehieneko lerrokadura gisa. Era berean, eraikinera sartzeko aukerak ezarri dira. Horrela, kaiaren eta itsasadarraren aurreko lerrokadura, paisaia eta itsasadarraren aurrealdean erreferentzia nagusia dena, itsaso eta lehorren arteko domeinutik eta portuko jabari publikotik kanpo geratuko da, sestra gainean zein azpian eta portuko espazioa inbaditzen duten hegalkinik gabe.

Hala ere, mendebaldeko lerrokadura, Itsas Etixerantz, sestra azpiko eta beheko solairuko okupazio maximoa izango da, eta goi-solairuetan 3,5 metroko hegala egitea ahalbidetuko du mendebaldeko portu-eremurantz, horrek itsas-lehorreko mugaketari eragin gabe. Atzeko lerrokadurari esker, sestra gainean ireki ahal izango da ibilgailuen zirkulaziorako atzeko kalea. Horretarako, lerrokadura gisa hartuko da Kaia kaleko 2. eta 3. zenbakietako eraikinetan dagoenaren paraleloa, hau da, etorkizunean 5. zenbakirako aurreikusitakoa. Horri esker, 2 metroko gutxieneko zabalera duten bi espaloi eta 3,5 metroko bi errei formalizatu ahal izango dira. Hala ere, sestra azpian, sestra gainean planteatutako lerrokadura gainditu ahal izango da, sestra azpiko solairu bat eraikiz gero aparkaleku-kopuru koherente bat lortu ahal izateko.

Ekialderanzko lerrokadurak gutxienez 9 metroko distantzia mantentzen du Talleres Arostegi eraikinarekiko; eraikin hori mantendu egiten da, eta nahikoa leku geratzen da beharrezko bideak formalizatzeko. Portuko jabariarekin duen loturari dagokionez, eraikinak oinezkoentzako sarbidea izan ahal izango du, bai eta zamalanetarako sarbidea ere (baina ez eskusiboa), itsasadarraren parean dagoen portuko jabari publikoko eremutik. Lurpean garajea eraikiz gero, bertara sartzeko arrapala egin ahal izango da portuko jabari publikoaren gainean, eraikinaren alboko fatxadan, dagokion administrazio-emakida eman ondoren. Gehienez sotoko solairu 1 + beheko solairu +3 solairu altuko sekzioa planteatzen da, eta teilatu-hegalaren gehieneko altuera 15,50 m-koa izango da; Beheko solairuaren gehieneko altuera 1. solairuarekiko 5,00 m-koa izango da, eta gehieneko altuera lurzorutik solairu altuetan: 3,50 m-koa, estalki lau edo misto batez errematatua (estalki laua eta estalki inklinatua).

ERABILERAK

Kofradiako eraikin berriari Kostaldee buruzko Legeak eragiten dio, eta, beraz, erabilerak mugatuta daude. Ekipamendu pribatuaren eta/edo publikoaren erabilera planteatzen da, kontuan hartuta indarrean dagoen hitzarmenak ezartzen duela antolamendu berri honetan Kofradiako lurzatiaren xedea, funtsean, zuzkidura publikoarena (tokiko sistema) izango dela,

1.500 m² (t) ingururekin, hirigintzako estandarrak betetzeko, eta 500 m² (t) Kofradiara bideratutako ekipamendu pribatuarekin, Kostaldee buruzko araudiarekin bateragarriak diren erabilerak sartzeko ikuspegiarekin.

Oriko Arrantzaleen Kofradiaren beraren 1924ko espiritua erreferentziazat hartuta, Kofradiaren eraikin berrirako erabileren proposamenaren helburua interes kolektiboari lotutako honako helburu eta funtzio hauek integratzea eta eguneratzea da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Itsas Garapen Elkartea Tokiko Ekintza Taldeari onartutako partaidetzazko toki-garapeneko estrategiekin erabat bat

datozenak. Arrantza, Orio barne, tokiko ekonomiaren dibertsifikazioa eta itsas kultura-ondarearen sustapena ahalbidetzen dituenak.

- I. Jarduera nautikoak sustatzea, bereziki, arrauna
- II. Lurraldeko arrantza-produktuak sustatzea
- III. Itsasoko eta kostaldeko ingurumena sustatzea
- IV. Itsasoko eta arrantzako kultura-ondarea eta arrantza-arteak sustatzea eta zabaltzea.
- V. Pertsonen prestakuntza eta gaikuntza
- VI. Turismo-sustapena. Helburu horiek lortzeko, honako hauek eraikitzea proposatzen da: erakusketa-espazioak dibulgaziorako, prestakuntza-espazioak, bileretarako, ekitaldietarako eta hitzaldietarako espazioak, arrantza-produktuen sustapen eta balorazio gastronomikorako ostalaritza-guneak, Gipuzkoako Kofradien Federazioak hasitako jardueri dagokienez, arraun-klubarentzako espazio sozialak, Kofradiaren eta Udalaren beraren artean partekatutako espazioak, eta Arrantzaleen Kofradiaren zerbitzurako adierazitakoez gain

DIKE AZPIEREMUA

MUGAKETA

Finkatu gabeko hiri-lurzoruko Dike azpieremuak muga egiten du iparraldean komunikazio-sistema orokorrarekin, N-634 errepidearen (Aita Lertxundi kalea) hiri-zeharbideak osatzen duena, hegoaldean Oria ibaiarekin, ekialdean Orioko Nueva Cerámica enpresak okupatutako finkarekin, eta mendebaldean Aramendi Toki-Alai 5. eremuko hiri-lurzoru finkatuekin.

Dike azpieremuaren azalera osoa 20.187 m²-koa izango da. Horietatik, 3.281,70 m² Sistema Orokorren Sareko Hiri Espazio Librei dagozkie, eta 906,15 m² Komunikazioen Sistema Orokorrari (N-634 errepidea). Guztira, 4.197,85 m² dira Sistema Orokorrei dagozkienak; beraz, 15.989,15 m² geratzen dira Sistema Orokorrez bestelako lurzoru gisa.

IRIZPIDEAK

Antolamendu horren irizpideak honako hauek dira:

- Sistema orokorretako eta tokiko sistemetako berdeguneak eta oinezkoentzako eremu publikoak gunek bakar batean biltzea, hegoaldera begira, itsasadarraren ondoan, paisaia naturalari begira, ahalik eta etxebizitza eta herritar gehienek ingurumenarekin harremana izan dezaten. Orioko hiri-lurzuaren itsasadarrarekiko espazio publiko handiena izango da, eta ingurumen-izaera nabarmena emango dio proposamenari.

- Itsasadarretik eraikuntzak inpaktu txikiagoa izatea.
- Erdiko bideak bere lerrokadurei eta merkataritza-konfigurazioari eusten die, eta beheko solairuko lokaletarako irisgarritasuna errazten du (oinezkoak, ibilgailuak, zamalanak).
- Lurpeko aparkaleku publikoa eta pribatua modu mankomunatuan kudeatzeko aukera, eremuaren mendebaldeko eta ekialdeko muturretatik sarbideak partekatuz eta bide nagusia trafikotik askatuz.

- Hiri-presentzia eta irisgarritasun bikoitza duten zuzkidura-eraikinak, bai Aita Lertxundi kaletik (hiri-zeharbidea eta komunikazioen sistema orokorra), bai eremuko bide nagusi berritik (komunikazioen tokiko sistema), behe-solairuko + 2 solairu altuko gehieneko profila dutenak, zuzkidura publikoekin bat datozen tipologiak ahalbidetuz.
- Hiri-espazioetarako hobekuntza akustikoko konponbideak ahalbidetuko dituen antolamendua

ANTOLAMENDUA

Antolamendu horren helburua eremua garatzen den lekuari balioa ematea da. Hiru espazio nagusi ditu, libreak eta erabilera eta jabari publikokoak, lortu nahi den erabilerari eta/edo kontzeptuari lotutako baldintza fisikoak eta diseinukoak betetzen dituztenak, hiru ekosistema eta hiri-paisaia desberdin lortzeko, baina antolamenduaren bilbea osatuz elkarri lotuta:

1.- Ingurumen-ekosistema: eremuko espazio nagusia, 6.225 m² inguruko azalera duena, babes akustiko gisa eraikinez inguratuta, eta "u" bat osatzen duena oinplanoan, hegoaldera eta Oriako itsasadarrera begira, hiri-garapen berria itsasadarrarekin eta paisaia naturalarekin lotzen duena.

Espazio horrek, era berean, hiru eremu desberdin ditu:

- Itsasadarretik hurbilen dagoen espazioa itsas-lehorreko jabarian dago, kotan. +3,50. Espazio berdea da, ibaiertzeko zuhaitzia du, eta oinezkoentzako pasealekuaren hasiera eta bidegorria ditu, itsasadarraren ondoan.
- Itsasadarretik urrutien dagoen espazioa eraikinetik hurbilen dagoena da. Honela planteatzen da: Espazio libre eta lorategi bat, +6,00 kotan kokatua (Aita Lertxundi kaletik erreferentziatzeko kota), eraikinen beheko solairuak itsasadarrarekin lotzen dituen eta eremurako planteatutako erabilera eta jabari publikoko aparkalekuaren gainean dagoena. Sestra azpiko bi solairuko aparkaleku horrek 140 plaza inguruko edukiera du. Antolamenduaren mendebaldeko eta ekialdeko muturretatik dituen sarbideak eta 2. satora sartzeko arrapala sestra azpiko aparkaleku pribatuarekin batera partekatuko dira, eta ez dute eraginik izango eremuko kale nagusiko trafikoan.
- Egonaldiko, itsasadarrarekiko erlazioko eta garapenaren arteko trantsizioko hiri-pieza bat. Eraikuntza eta natura, lorategi-harmailen bidez, +6,00 kotatik gorako espazio librearen eta +3,50 kotan dagoen itsasadarraren ertzeko oinezkoen pasealekuaren arteko kota aldea konpontzeko.

2.- Merkataritza-ekosistema: eremua eta haren ingurunea egituratzeko espazio zentral bat planteatzen da, gaur egun Aita Lertxundi kaleko (N-634) hiri-zeharbideak sortutako komunikazio-ardatzaz haraindi egitura zehatzik ez duena. Eremu hori bi erreiko bide nagusi baten bidez diseinatzen da, eta bi norabidetan, baterian aparkatuta eta tamaina txikiko zuhaitz-ilararekin, alde bietan, 4 metroko zabalerako espaloiak dituela, eta eraikinetako beheko solairuko lokalek alboetan. Aita Lertxundi kalerako planteatutako eraikuntzek ingurune horretako pantaila akustikoaren funtzioa betetzen dute. Lehen aipatutako aparkaleku publikoak guneko horri zerbitzua eta irisgarritasuna emango dizkio.

Eremuko irisgarritasun-arazoak konpontzeaz gain (oinezkoak, ibilgailuak, zamalanak), udalerriko hiri-lurzorua zati horri zerbitzuak eta jardura emango dizkion garapen komertzial eta tertziariora eta zuzkidurara bideratuko da. Era berean, Dike eremuan ezarritako dentsitateak eta inguruan dagoen eremu horren garapen ekonomikoa erraztuko du.

3.- Ekosistema soziala: antolamenduak erabilera publikoko espazio bat planteatzen du, zati bat estali gabea eta zati estali bat itsasadarrekiko perpendikularra, Dike eta Orioko biztanleen arteko elkarbizitza errazteko, integratu eta ekitaldiak egin ahal izateko (liburuaren eguna, azoka txikiak). Espazio hori merkataritzarekin nahiz ingurumenarekin lotzen da, baita eraikin pribatuekin ere.

Iparaldeko muga zuzkidura-erabilera publikorako lagapeneko lurzati publiko batek hartzen du

Bide nagusiaren erdialdearen iparraldean dago, ikusteko moduan eta baita bertara iristeko moduan ere, bide hori zeharkatuta, bai eta Aita Lertxundi kaleko hiri-zeharbidetik ere, eta hiri-erreferentzia da bi bideetan. Antolamenduaren erdian, bizitegi-eraikuntzaren azpian, zuzkidura bat ezartzen da eraikia eta Udalarri lagatzekoa. Kristalezko bolumena da, eta haren lerroakurak bizitegi-eraikinarenak baino gorago daude, eta altuera bikoitzeko espazio libre bat inguratzen du (beheko solairua gehi goiko solairu bat). Horrela, 750 m²-ko azalera duen espazio estali bat ahalbidetzen da, hainbat ekitalditarako erabiltzeko, hala nola, bixigu eguna, liburu-azoka, Km0 azoka edo asteroko azokak. Albo banatan komunikaziorako bi pasabide dituen espazio hori hiri-erreferentzia garrantzitsua izango da, bai kale nagusitik, bai itsasadarren aurreko espazio libretik, eta, azken horretan, oinezkoentzako eremu batekin osatuko da.

Ibilgailuentzako bide-sarea adierazitako bide nagusira eta Aita Lertxundi kalearekin dituen loturetara mugatzen da. Lurpeko aparkalekuetarako sarbideak eremuaren muturretatik egiten dira, bide nagusiaren erdiko gunea askatuz. Oinezkoen bilbea, ibai ertzeko pasealekuaz, bide nagusiko espaloiez eta oinezkoentzako eremuez gain, hainbat pasabidek osatzen dute beheko solairuan, eremuaren irisgarritasuna errazteko. Oinezkoentzako ibilbide guztiak irisgarriak dira, eta ez dute % 6ko malda gainditzen.

Eraikinek okupatutako partzelatutako espazioek gehienez ere bi sotoko profila + beheko solairua + 4 solairu altu eta teilatupe bat dute. Eraikinak itsasadarrerantz hurbil daude, eta profil hori txikiagoa da.

Bidearen iparraldean dauden lurzatiek babes ofizialeko etxebizitzak beharrak estaltzen dituzte mendebaldeko muturrean eta mendebaldeko orubean, etxebizitza tasatuen beharrak. Erabilera nagusiak beheko solairuko merkataritza- eta hirugarren sektoreko erabilera eta solairu altuetako bizitegi-erabilerak (etxebizitzak) dira.

Kalearen mendebaldeko hasieran, Orioko hirigunerantz, babes ofizialeko bi partzela daude babes ofizialeko etxebizitzak bidearen bi aldeetan, bolumen kubikoko bi eraikinetarako, eremurako hiri-atearen funtzioa beteko dutenak.

Bidearen hegoalderako lurzatiak "u" moduan antolatuta daude. Bidearen ondoan dauden eraikinen erabilera nagusiak beheko solairuko merkataritza- eta hirugarren sektorekoak eta solairu altuetako bizitegi-erabilerakoak (etxebizitzak) dira. Itsasadarrekiko alde perpendikularrak eratzen dituzten eraikinek bizitegi-erabilera dute solairu guztietan, eta terraza pribatu bat beheko solairuan, espazio berde libre publikoarekiko trantsizio gisa.

ERABILERAK

DIKE-KOFRADIA eremuaren zonakatze xehatua honela garatzen da:

BIZITEGI-ERABILERA KO LURZATIAK (A)

- Bizitegi komuneko lurzatiak: 6.498,87 m²
 - Kofradia: 0,00 m²
 - Dike: 6.498,87 m²
 - - Araubide Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzak: 1.047,61 m².
 - Etxebizitza tasatuak: 337,88 m².
 - Sustapen libreko etxebizitzak: 5.113,38 m²

KOMUNIKAZIO-SISTEMA OROKORRA (E)

- Bide-sarea: 4.860,78 m²
 - Kofradia: 0,00 m²
 - Dike: 4.860,78 m²
 - Hiriarteko errepidea (S.G.): 916,15 m²
 - Hiri bideak, espaloiak eta bizikleta bideak: 1.852,87 m²
 - Garajeko lurzatiak: 2.091,76 m²
- Portuko azpizona: 175,00 m²
 - Kofradia: 175,00 m²
 - Dike: 00,00 m²

Espazio libreak:

- Hiri-espazio libreak: 7.383,69 m²
 - Kofradia: 0,00 m²
 - Dike: 7.383,69 m²
- Komunitatearen ekipamendurako lurzatiak. Ekipamendu komunitarioko lurzatiak: 1.808,66 m²
 - Kofradia: 665,00 m²
 - Dike: 1.143,66 m²

ETXEBIZITZA KOPURUA


Gehienez 267 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da. Honela banatuta:

- Babes Ofizialeko 43 etxebizitza
- 17 etxebizitza tasatu
- 207 etxebizitza libre

ETAPA-PLANA


3 etapa aurreikusten dira jarduketa gauzatzeko. Lehenengo biak Diken: 1 etapa, erdiko kalearekin eta haren sarbideekin, hegoaldeko zoruak eta lurzatiak barne, itsasadarrerantz. 2. etapak erdiko kalearen iparraldean dauden lurzoruak hartzen ditu. Horri esker, lehendik dauden eraikinetan bizi direnek beren etxebizitzetan jarraitu ahal izango dute lehen fasea eraiki arte, beste bizileku bat emateko. 3. etapa Kofradiari dagokio. Hala ere, egokitzen jotzen bada, aldi berean gauzatu ahal izango dira.

DIKE ETA KOFRADIA EREMUA



Irudia: Iurbel SL

DIKE EREMUA



Irudia: Iurbel SL

5. TESTUINGURUA

DATU OROKORRAK


ORIO	Urtea	
Biztanleria	2020	6.132
Biztanle-dentsitatea: Bizt/K m ²	2020	632,16
Azalera: Ha	2014	966
65 urte eta gehiagoko biztanleria: %	2020	16,75
Atzerrian jaiotako biztanleria: %	2020	10,5
Goi-mailako ikasketadunak: %	2019	16,49
Euskaldunak: %	2016	76,68
Langabezia tasa: %	2019	9,5
Enplegua establezimenduetan	2019	1.146
Zoru urbaniza ezina: Udalerraren azaleraren %	2014	84,47
Familia-etxebizitzak: Batezbesteko azalera. m ²	2019	92,5
Biztanleko BPGa: Euroak	2017	17.206,70
Udal BPG: Euskadi=100	2017	50,9
Jarduera ekonomikoa. Industria: BEGaren %	2017	3,8
Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren %	2017	75,9
Jarduera ekonomikoa	2017	12,6
Jarduera ekonomikoa: Lehen sektorea BEG %	2017	7,8
Errenta pertsonala:18 urtez gorakoak. Euroak	2017	18.455

Iturria :Eustat

DEMOGRAFIA


Biztanle kopuruak goranzko joera nabarmena izan du Orion, bai azken urteotan, bai azken mendean ere. 2020 hasieran 6.132 biztanle zituen, horietatik %50,4 gizonak eta %49,6 emakumezkoak. Oriok eskualdean eta probintzian baino zahartze indize txikiagoa du, oriotarren %16,65 65 urtetik gorakoa da, aldiz Urola Kosta eskualdean batez bestekoa % 19,79 da eta probintzian %22,43. Jaiotze tasa ez da ordea eskualdekora baino handiagoa (Urola kosta %7,53, Orio %7,35), hortaz, migrazio saldoa da biztanle igoeraren arrazoi nagusia. (Iturria: Eustat 2020).

POPULAZIOAREN BILAKAERA



Iturria: INE eta Eustateko datuetatik egileak egindako taula.

ADIN PIRAMIDEA



2017			
Biztanleria	5.944		
Adina	-	-	
Jaiotze-urtea			
Emakumezkoak	2.946	% 49,6	
Gizonezkoak	2.998	% 50,4	
Sexu ratioa (E/G)	0,98		
Erreferentzia data	2017/01/01		
Datu mota	Behatutako datuak		


Adin-tarteak

Adina	Unitateetan	%			Sexu ratioa
		Guzt	Ema	Giz	
≥ 65	982	16,5	52,9	47,1	1,12
20-64	3.599	60,5	48,8	51,2	0,95
≤ 19	1.363	23,0	49,2	50,8	0,97
Guztira	5.944	100,0	49,6	50,4	0,98

Iturria:Eustat

AZKEN URTEOTAKO MIGRAZIO MUGIMENDUAK

Duela hamabost urte (etxebizitza berri multzoak eraikitzen hasi ziren sasioa) izan zen inflexio puntua migrazio mugimenduetan.



Iturria: Eustat

Kanpoko migrazio saldoa Oriok EAE, Gipuzkoa eta Urola Kostakoaren aldean handiagoa du eta era berean, hazkunde begetatibo tasa ere handiagoa izan du 2019an.

	Urtea	Orio	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Jaiotza-tasa gordina (biztanleen ‰)	2019	7,35	7,53	7,10	6,99
Kanpoko migrazio-saldoa (biztanleen ‰)	2019	10,35	5,01	7,46	8,83
Hazkunde begetatiboko tasa (biztanleen ‰)	2019	1,67	-0,57	-2,39	-2,81
Biztanleria atzerritarra(%)	2019	7,73	6,80	7,64	7,41

Iturria: Udalmap

DEMOGRAFIA

DATU SOZIOEKONOMIKOAK

a) Okupazio tasa

2019	%
16-64 urte bitartean	57,12
16-64 urte bitarteko emakumeak	54,49
16-64 urte bitarteko gizonezkoak	59,75
Genero arrakala	5,25

Iturria: Eustat 2019

b) Langabezia tasa


Orioko langabezia tasa 9,5koa da, generoaren arabera aztertuz gero emakumezkoetan langabezia tasa 11,7 da eta gizonezkoetan 7,4. *(Iturria: Lanbide 2020/10)*

c) Lan lekuak

Orioko biztanleen %22,5ek egiten du lan udalerrian bertan. Ia %80k Oriotik kanpo lan egiten du, beraz. Ia hiru laurdenek Gipuzkoako beste udalerrri batean egiten dute *(Iturria: Eustat 2018)*.

d) Lan jarduera

Orioko biztanle gehienak zerbitzuen arloan egiten dute lan,



Iturria: Udalmap

BIZTANLERIAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

	Urtea	Orio	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Errenta pertsonala guztira (€)	2017	22.009,00	22.234,00	22.086,00	21.083,00

Iturria: Udalmap

Gini koefizientea	34
-------------------	----


Lurralde jakin batean diru-sarreraren edo aberastasunaren desberdintasuna zein den neurtzeko erabiltzen den koefizientea da Gini. Koefizienteak banatutako biztanleriaren pisu metatuaren eta eskuragarri duen errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa adierazten du. Zero eta ehun arteko balio bat da emaitza: 0 berdintasun perfektua litzateke (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte), eta 100, erabateko desberdintasuna (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu, eta beste guztiek batere ez). Inguruko lurralde-eremuetako datuekin alderatuta, Espainiakoaren parekoa da Gini koefizientea Orion, EAEkoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa. (Iturria: Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa Orion. Siadeco eta Orioko Udala 2018)

HIZKUNTZA ADIERAZLEAK

EZAGUTZA ETA ERABILERA DATUAK


Euskararen ezagutza maila handia da (%76,68), eskualdekoaren batez bestekoaren azpitik (%77,98) eta Gipuzkoakoaren gainetik dago (%53,37). Ezagutzak 1996 arte goranzko joera izan zuen (%82,64) eta hor inflexio puntua izan zen eta beheranzkoa hasi zen. Azken neurketak aurrekoa apur bat hobetu eta gorantz egin du, hurrengo neurketetan ikusiko da joera aldaketa bat den edo ez.

Euskararen ezagutza Orion %




2 urte edo gehiagoko biztanleak, euskarako jakintza-maila orokorraren arabera 2016	Orio %	Urola kosta %	Gipuzkoa %	EAE %
___ Euskaldunak	76,68	77,98	57,37	42,2
___ Ia euskaldunak	9,17	9,05	15,9	18,46
___ Erdaldunak	14,15	12,97	26,73	39,34
Lehen-hizkuntza 2016				
___ Lehen-hizkuntza. Euskara	59	62	34	18
___ Lehen -hizkuntza. Gaztelania	28	27	53	71
___ Lehen -hizkuntza. Biak	8	7	8	6
___ Lehen -hizkuntza. Beste bat	5	4	4	4
Etxean erabiltzen den hizkuntza 2016				
___ Etxean erabiltzen den hizkuntza. Euskara	49	54	27	14
___ Etxean erabiltzen den hizkuntza. Gaztelania	30	30	55	73
___ Etxean erabiltzen den hizkuntza. Biak	17	13	14	10
___ Etxean erabiltzen den hizkuntza. Besteren bat	3	3	3	3

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak



Iturria: Eustat



Iturria: Eustat


EUSKARAREN KALE ERABILERA

Orioko udalak bi urtero neurtu du euskararen kale erabileraren bilakaera, biztanle hazkundearekin batera neurketen emaitzek beheranzko joera hartu zuten, baina azkeneko neurketan joerari buelta eman eta gorantz egin du erabilerak.

Orioko euskararen erabileraren kale neurketa.

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	GUZTIRA
1989	%77,40	%30,20	%54,90	%73,80	%55,90
1991	%78,40	%31,20	%55,20	%67,30	%57,60
1992	%77,00	%50,70	%59,20	%67,40	%62,00
1993	%85,00	%54,00	%54,00	%77,60	%62,10
1994	%83,00	%62,30	%59,10	%78,90	%66,90
1995	%91,30	%60,60	%55,70	%75,80	%65,20
1996	%92,60	%70,10	%57,60	%71,90	%64,90
1997	%93,10	%67,60	%56,30	%73,10	%67,10
1998	%87,70	%67,50	%58,50	%78,50	%67,70
1999	%94,80	%84,90	%62,60	%75,80	%72,90
2001	%89,54	%74,63	%67,16	%75,71	%74,02
2003	%92,29	%84,29	%63,27	%73,52	%71,58
2005	%86,64	%81,08	%58,03	%77,20	%68,29
2007	%96,07	%83,57	%65,58	%76,90	%73,53
2009	%83,50	%84,64	%53,51	%71,65	%63,89
2011	%93,52	%90,02	%61,19	%77,24	%73,93
2013	%88,50	%88,55	%55,87	%69,59	%66,37
2015	%84,74	%79,93	%57,18	%58,70	%63,13
2017	%74,50	%74,80	%49,50	%61,90	%60,20
2019	%84,11	%76,15	%71,67	%62,43	%71,71

Iturria: Orioko Udaleko Euskara Zerbitzua.




Iturria: Oriko Udaleko Euskara Zerbitzua.

EUSKARAREN INGURUKO EGITURAKETA

Orio UEMAKo kide da eta Euskara Zerbitzua eta Euskara Sustatzeko Plana ditu.

ETXEBIZITZA

2019an 3010 etxebizitza zeuden Orion, horietatik 22 ziren hutsak (iturria: Oriko Udala). Beraz, etxebizitza hutsen tasa %7,4koa da.



Iturria: Eustat

Familia etxebizitza nagusien ezaugarriak	Orio
Batez besteko antzinakotasuna	33,2
Batez besteko azalera erabilgarria	92,2
Berokuntza (%)	71,3
Igogailua (%)	67,8

Iturria: Eustat. Gipuzkoako etxebizitzak biztanle-entitateen arabera, familia etxebizitza nagusien mota eta ezaugarrien arabera. 2019/01/01

Biztanle dentsitate handia du Oriok, aise gainditzen du inguruko eta probintziako batez bestekoa. Azken bost urteetan ez da Babes Ofizialeko Etxebizitzarik egin Orion.

	Urtea	Orio	Eskuald ea	Gipuzko a	EAE
Etxebizitza-dentsitatea egoitza-lurzoruan (Etxebizitza/ Ha.)	2019	69,94	65,97	63,76	47,71
50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten familia-etxebizitzak (%)	2019	19,56	23,63	34,63	35,34
Aurri-egoeran, egoera txarrean edo eskasean dauden eraikinetako familia-etxebizitza nagusiak (%)	2001	8,47	12,89	14,91	8,66
Etxebiden dauden etxebizitza-eskabideen kopurua (% biztanle)	2019	56,95	56,07	47,11	46,15
Etxebidek azken bost urteetan adjudikatu dituen etxebizitza babestuenak (BOE) (% biztanle)	2019	0,00	0,07	1,88	2,80
Udal hiri-lurzorua (%)	2019	4,57	2,68	3,94	3,82
Bizitegiatarako lurzoru urbanizagarria (%)	2019	0,00	11,96	11,91	12,16
Biztanle-dentsitatea (bizt./Km ²)	2019	620,82	234,76	379,30	311,16

Iturria: Udalmap

MUNTO EREMUA

Orioko Muntoko gunea Oriaren itsasadarrenaren eskuin aldean dago, Muntoko gunean 200 etxebizitza eraiki dira 2010etik 2018ra eta beste 50 etxebizitza tasatu eraikiko dira epe laburrean. Ebaluazio



batzordeari egokia iruditu zaio bai etxebizitza kopuruagatik, baita ezaugarriengatik ere Munton izandako joerak aztertzea Dike eremuan izan daitezkeenak aurreikusteko. Munton egin diren 200 etxebizitza libreetatik 22 hutsik daude (bigarren etxebizitzak eta etxebizitza turistikoak, azken horietatik 7 udalean legeztatutakoak), hau da %11. Guztira: 178 etxebizitzetan 423 pertsona erroldatuta daude, beraz 2,37 lagun/etxebizitza bakoitzeko.

Inguruko herrietatik Oriora bizitzera etorritakoetako asko gazteak dira Munto aldean eraiki diren etxebizitza berrietan kokatu dira, eta Oriotik kanpo lan egiten dute, batez ere. Maila sozioekonomiko ertain-altua dute, horien artean ez da ematen pobrezia edo gabezia egoera larriarik. Horri lotuta, batez besteko errenta hazi egin da Orion azken urteotan. (Iturria: Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa Orion. Siadeco eta Orioko Udala 2018)


MUNTORA ETORRITAKOEN JAIOTERRIA

Muntora etorritakoen jaioterria aztertzen badugu, gehienak gipuzkoarrak dira eta gipuzkoarren artean oriotarrak dira nagusi.

MUNTORA ETORRITAKO JAIOTERRI PROBINTZIA

Araba	%0,9
Gipuzkoa	%88,2
Bizkaia	%1,7
Nafarroa	%0,5
Beste probintzia/herrialdeak	%8,7

GIPUZKOAN JAIOTAKOEN ARTEAN HERRI NAGUSIENAK




Iturria: Orioko Udaleko errolda 2020

MUNTORA ETORRITAKOEN JATORRIA

Jaioterria atzerrian izan arren, nondik datozen aztertzen badugu, hau da, kanpotik datozenen artean azkena erroldatuta egon ziren herriari so egiten badiogu gipuzkoarrak dira gehienak eta horien artean donostiarrak, zarauztarrak eta aiarrak dira nagusi.

MUNTORA ETORRITAKO JATORRIZKO PROBINTZIA

Araba	%1,2
Gipuzkoa	%86,3
Bizkaia	%3,2
Nafarroa	%0,8
Lapurdi	%0,4
Beste probintzia/herrialdeak	%8,1

GIPUZKOATIK ETORRITAKOEN ARTEAN HERRI NAGUSIENAK


Iturria: Orioko Udaleko errolda 2020.

ETXEBIDEKO ESKAERA DATUAK

Etxebiden jasota dauden eskaeretan 2020ko azaroan Oriorako eskaera egin dutenen artean 7106 lagun ageri dira.

Jatorria	Kopurua	portzentajea
Europar Batasuneko atzerritarra	169	%2,38
Europar Batasunetik kanpoko atzerritarra	855	%12,03
Ez atzerritarra	6.082	%85,59
Adina	Kopurua	portzentajea
<30	1.260	%17,73
30 a 44	2.769	%38,97
45 a 54	1.979	%27,85
>=55	1.098	%15,45
Sexua	Kopurua	portzentajea
Emakumea	3.797	%53,43
Gizona	3.309	%46,57

Iturria: Etxebide.

ALOKAIRU ETXEBIZITZEN ESKAERA

	ORIO						GUZTIRA / TOTAL
	ERROLDATUAK EMPADRONADOS			EZ ERROLDATUAK NO EMPADRONADOS			
	EROSKETA	ALOKAIRUA	GUZTIRA	EROSKETA	ALOKAIRUA	GUZTIRA	
	COMPRA	ALQUILER	TOTAL	COMPRA	ALQUILER	TOTAL	
GUZTIRA / TOTAL							
Kopuru absolutua / N° Absoluto	50	121	171	72	73	145	316
% GUZTIRA / % sobre TOTAL	16 %	38 %	54 %	23 %	23 %	46 %	
KOLEKTIBOA / COLECTIVO							
Gainontzekoak / Resto	30	72	102	42	38	80	182
Etxebizitzaren jabetza galitzea / Pérdida propiedad vivienda	0	0	0	0	0	0	0
30 urtetik beherakoa / Menor de 30 años	14	12	26	27	10	37	63
70 urtetik gorakoa / Mayor de 70 años	1	7	8	0	2	2	10
Banatze eta dibortziaztea / Separación y divorcio	3	24	27	3	15	18	45
Genero indarkeriaren biktima / Víctimas de violencia de género	1	2	3	1	0	1	4
Guraso bakarreko familia / Familia monoparental	2	21	23	0	10	10	33
Ezgaitasun psikikoak / Discapacidad psíquica	0	2	2	0	3	3	5
Mugikortasun urriko ezgaitasuna / Discapacidad movilidad	0	1	1	0	0	0	1

Iturria: Karkara aldizkaria 2018/03

Etxebizitza prezioa m²ko

	Orio	Gipuzkoako batez bestekoa
2019ko abuztua	3302 €/ m ²	2895 €/m ²
2018ko abendua	3060 €/m ²	2903 €/m ²

Iturria: idealista.com.

6. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

GALDETEGI LABURRA

Oriko HAPOn Dike eta Kofradia eremu eteneko aldaketa puntualean eraikitzea aurreikusita dagoen etxebizitza kopuruak biztanleriaren hazkundera ekarriko luke eta beraz eragina izango luke tokiko biztanleriaren kopuruan. Era berean interpretazio zentroak ere bisitariak erakar ditzake. Ondorioz, arrazoizkoa da prebentzio ikuspegitik izan dezakeen eragina neurtzea.

1. PLANAREN/EGITASMOAREN GAINEKO DATUAK

Eremua	Orio
Udalerria ez den eremuaren izena	
Planaren/Egitasmoaren izena	Oriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa Dikeko eta Kofradiako eremu ez jarraituan
Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena	Ebaluazio batzordea

2. GALDETEGI LABURRA

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko direlako...)	BAI	267 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita (gehieneko kopurua)
2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko direlako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)	BAI	Erabilera tertziariorako lokalak eraikiko dira. Eta Kofradian interpretazio zentroa jarriko da
3. Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du?	BAI	Auzune berri bat eraikiko da, eta herri barruko mugikortasuna alda dezake.

IRISMEN DOKUMENTURAKO OINARRIA

Irismen dokumenturako Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatutako aplikazioak oinarri hau ematen du Oriori dagokionez.

Guztira	5961
Euskaldunak - Guztira%	76,68
Ama-hizkuntza euskara - Guztira%	59,43
Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira%	50,78
Euskara Zerbitzua	BAI
ESEP	BAI
Faktorea biztanle kopurua	2,00
Faktorea Euskaldunak	4,00
Faktorea Lehen hizkuntza	2,00
Faktorea Etxeko hizkuntza	2,00
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	0,00
Hauskortasun indizea	5,33
Hiren eraginaren balioa	2,00
Euskararen proiektzio indizea	-3,57
Bilakaera indizea	-1,57

TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA

HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI

7. ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA

Euskararen Proiektzio Indizea egiteko erabili diren hipotesietan ikus daitekeenez, HAPOn aurreikusitako etxebizitzak eraikiko balira, Orioko ezagutzan eragina izango luke (-% 3,57). Aztergai diren Dike eta Kofradia eremuaren eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko ebaluazio batzordeak bereizita aztertzea erabaki du, bataren zein bestearen izaera eta eragina ezberdina izan zitekeela iruditu zaiolako. Eta horrela izana da, Kofradia eremua eraginaren intentsitatea garrantzi gutxikoa dela ebatzi baita, aldiz Dike eremuaren eragin linguistikoaren intentsitatea moderatua izango litzatekeela aurreikusi da

ELE GALDETEGIA. KOFRADIA EREMUA

Kofradiako proiektuak oro har eragin baxua izango duela eta harreman sareetan eragin positiboa izan dezakeela erabaki du ebaluazio batzordeak.

	BAI/EZ	+ -	INTENTSITATEA	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
1.1. Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragina mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Ez da aurreikusten eraginik, itxita dago dagoeneko eta proiektua gauzatu bitartean ez du aparteko eraginik izango.
1.1.2. Eragina hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.2. Eragina proiektua egin eta gero					
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	EZ				
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	+	ERTAINA	-6	Kofradiak herritarrentzat interes oso handia edukiko du kokatuta dagoen lekuagatik, eta adibidez ibaira begirako

					kristalezko begiratokiarekin egiten bada antzinako kofradia zegoenean gertatu ohi zen moduan, itsasorako joan etorriei so egiteko talaia eta harreman sozialetarako toki aproposa izan daiteke. Orion ekitaldi ertainetarako areto baten beharra dago, gabezia dago eta hutsune hori beteko du, kultur ekitaldietarako, batzartzeko eta bestelakoetarako. Bestalde, interpretazio zentroak harreman sareetan ez duela aparteko eraginik izango aurreikusitako da.
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
1.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	+	ERTAINA	-4	Eraginak denboran iraungo du
INTENTSITATE MAILA:				-10	ERAGIN POSITIBOA

2. Tokiko euskararen ezagutza					
2.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabaritutako da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Ez du eraginik izango ezagutza proiektua egin bitartean.
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					

2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	BAXUA	2	Bisitariak etorriko dira, baina biztanle berririk ez da etorriko Kofradiaren eraginagatik. Oso eremu euskalduna da, turismo bulegoa bertan jartzean beste hizkuntzak ere entzun daitezke baina ez du aparteko eraginik izango hizkuntzan. Interpretazio zentroak ez du berez erakarriko, bestela ere etorriko liratekeen bisitariak dira gerturatuko direnak, bisitariak hondartza eremutik herrigunera erakartzea da helburua, baina ez da ezagutzen eraginik aurreikusten.
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1	Bisitarien jariora ez da etengabekoa, interpretazio zentroak udan izango du eraginik handiena izatekotan.
2.4. Eragina etengabekoa izango da					
INTENTSITATE MAILA				6	BAXUA

3. Tokiko euskararen erabileran					
3.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					

3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da				0	
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarrituko da?					
3.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?				0	
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	3	Proiektuak izan dezake eragina euskararen erabileran, baina izatekotan txikia izango lukeela aurreikusi da, ez baita esku-hartze handiegia. Orioko Udaleko turismo planean euskara herriaren aberastasun modura jaso da, eta horrek ere bere isla izango du Kofradiako interpretazio zentroan. Helburua egun etortzen diren bisitariak herrigunera erakartzea da. Eskolekin eta ikastetxeekin elkarlana dago aurreikusita interpretazio zentroa bisitatzeko. Erabilera anitzeko aretoaren eragina positiboa izango da euskararako, herrian antolatzen diren kultur ekintza gehienak euskaraz dira-eta.
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1	Udan etortzen dira bisitariak batik bat.
3.4. Eragina etengabekoa izango da					
INTENTSITATE MAILA:				12	BAXUA

4. Hizkuntza paisaia					
4.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Ez da aurreikusten eraginik, udal ekipamendua denez orain arteko hizkuntza politikarekin jarraituko da.
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
4.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki					
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	3	Euskara gailenduko da egun ezarrita dauden hizkuntza irizpideak aplikatuko direlako aurrerantzean ere, hizkuntza gehiago agerian izango dira baina euskarak lehentasuna izango du. Interpretazio zentroari dagokionez, euskara edukietan ere egongo da, turismo planean euskara herriaren aberastasunaren barne baitago jasota. Interpretazio zentroaren inguruko seinaleztapena jarriko denez eragina hedatua izango da.
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
4.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	BAXUA	2	Ezarritako seinaleztapenak finkoak izango dira beraz izatekotan eragina etengabekoa izango da.
INTENTSITATE MAILA				5	BAXUA

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
5.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Egin bitartean ez dago kofradiaren inguruko komunikaziorik aurreikusita
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
5.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	3	Irteerak, eskaintzak, jarduerak egingo dira interpretazio zentroaren inguruan. Euskara gailenduko da egun ezarrita dauden hizkuntza irizpideekin jarraituko delako aurrerantzean ere. Interpretazio zentroari dagokionez, Turismo planean euskara herriaren aberastasunaren barne dago jasota, eta orain arteko politikarekin jarraituko da, hizkuntza gehiago agerian izango dira baina euskarak beti lehentasuna izango du. Interpretazio zentroaren inguruko komunikazioa egingo denez eragina hedatua izango da.
5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1	Aldian aldian edo sasoiaren arabera izango dela komunikazioa aurreikusi da
5.4. Eragina etengabekoa izango da					
INTENTSITATE MAILA				4	BAXUA

6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan					
6.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
6.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	BAXUA	2	Gerta daiteke baina eragina txikia izan daitekeela aurreikusi da, eta kofradiako interpretazio zentroari lotuta zuzenean.
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1	Une jakin batean, edo aldian aldian gertatu daiteke
6.4. Eragina etengabekoa izango da					
INTENTSITATE MAILA				3	BAXUA

Eragin Linguistikoaren Intentsitatea Puntuazioa	20
GARRANTZI GUTXIKOA	

ELE GALDETEGIA. DIKE EREMUA

Dike eremuak eragin nabarmenena harreman sareetan izango du, elkargune berriak eta mugimendu fluxu berriak sortuko direla aurreikusi baita. Bestelako alderdietan ere eragina izango du etorriko diren biztanle berrien ondorioz, batik bat euskararen ezagutzan, erabileran eta hizkuntza paisaian. Zerbitzuen eskaintzan eta komunikazioan izan dezakeen eragina baxua dela ebatzi du ebaluazio batzordeak.

	BAI/EZ	+ -	INTENTSITATEA	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
1.1. Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragina mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Gaur egun erabilgarri ez dagoen ingurune batean egingo da eta ez da uste eraginik izango duenik.
1.1.2. Eragina hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.2. Eragina proiektua egin eta gero					
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	HANDIA		Gune berriak sortuko dira, udalak ekipamendu berria jarriko du kristalezko bolumenean, bi pisuko altuera izango du. Etxebizitzan beheko aldean erabilera komertzialerako lekua egingo da eta espazio publiko zabala irekiko da hegoalderantz. Ondorioz, ingurune erakargarria izango da eta mugimendu fluxu berriak eta harreman sareetan joera

					berriak sortu daitezke. Bigarren faseko eremuan ere orubea egongo da, eta udalaren esku egongo da. Etxebizitza libreak 2 fasetan egingo dira eta horiei babes ofizialekoak eta tasatuak gehitu behar zaizkie.
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
1.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	ERTAINA		Sortu daitezkeen mugimendu fluxuek denboran iraungo dute.
INTENTSITATE MAILA:				16	HANDIA

2. Tokiko euskararen ezagutza					
2.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Egin bitartean ez da eragin aurreikusten ezagutza
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					

2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	ERTAINA	6	Ezagutzaren galera hain handia ez izan arren, jaitsiera horrek arnasmune izaeratik urrunduko luke Orio eta inflexio puntua izan daiteke. Gaur egun ezagutzari lotutako hainbat zantzu kezkarri ikusi dira. Ezagutzak 1981etik (%75,23) goranzko joera izan zuen 1996 arte (%82,64) eta ondoren beheranzko joera izan du eta hogeitun urtean 6 puntu jaitsi da. Beraz beste esku-hartze batek (267 etxebizitza) egoeraren beheranzko joera areagotu dezake.
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
2.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	ERTAINA	4	Aurreko egoerara itzultzeko denbora beharko litzateke.
INTENTSITATE MAILA				20	ERTAINA

3. Tokiko euskararen erabileran					
3.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarrituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				Ez da aurreikusten eragin berezirik
3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da				0	
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarrituko da?					
3.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?				0	

3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	ERTAINA	6	Ezagutzan izan daitekeen jaitsierarekin %70eko langara gerturako litzateke eta muga hori gainditzean erabilera jaisteko probabilitatea handitzen da. Jaitsiera horrek beheranzko joera markatu dezake. Muntoko esku-hartzeak hizkuntzan izandako eragina nahiko ondo kontrolatu ahal izan da eta jaitsiera neutralizatu egin da modu mailakatuan eraiki direlako etxebizitzak (10-15 urte). Dikeko etxebizitzak eraikitzearen eraginak egoera konprometituan jar dezake Orioko euskararen erabilera.
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da				0	
3.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	ERTAINA	4	Eragina etengabekoa litzateke
INTENTSITATE MAILA:				30	ERTAINA

4. Hizkuntza paisaian					
4.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarrituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0.5	Gerta daiteke sustatzaileak/eraikitzaileak hizkuntza paisaiako elementuren bat gaztelaniaz jartzea baina eragina txikia litzateke
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarrituko da?					
4.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki	BAI	-	ERTAINA	4	Izan daiteke hizkuntza paisaian eragina izatea etxepe guztiak komertzioak edo bestelako

					ekipamenduetarako erabiliko dira-eta. Gaur egun merkataritza arloa lantzen da udalerriko euskara planean eta hizkuntza irizpideak zehaztuta daude, neurri horiek izan zezakeen eragin negatiboa apalduko lukete.
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da				0	
4.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	ERTAINA		
INTENTSITATE MAILA				8,5	ERTAINA

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
5.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	BAI	-	BAXUA	0.5	Eragina izatekotan ere txikia izango luke. Proiektua garatu bitartean etxegileek komunikazioen bat egin dezakete gaztelaniaz, baina hizkuntza irizpideak landuko dira beraiekin.
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
5.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da	BAI	-	BAXUA	3	Dike eremuan sortu daitezke herrian lehen ez dauden eskaintzak, eta herri osora zabalduko daiteke horien publizitatea. Hala ere, komunikazioetan egungo joerari eustsiko zaiola aurreikusi da.

5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da	BAI	-	BAXUA	1	Publizitate edo bestelako komunikazioak aldian aldian agertu daitezke.
5.4. Eragina etengabekoa izango da					
INTENTSITATE MAILA				4,5	BAXUA

6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan					
6.1. Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du	EZ				
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?	BAI	-	BAXUA	2	Komertzio, eta ekipamendu askorako lekua dago planifikatutako eremuan, izan daiteke gaztelaniazko zerbitzuren bat eskaintzea, baina oro har gaur egun dagoen joerari eutsiko diela aurreikus daiteke.
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
6.4. Eragina etengabekoa izango da	BAI	-	BAXUA	2	Zerbitzu eskaintzaren bat baldin badago eragina etengabea izango da.
INTENTSITATE MAILA				4	BAXUA

Eragin Linguistikoaren Intentsitatea Puntuazioa	83
MODERATUA	

8. FUNTSEZKO ALDERDIAK

Funtsezko alderdien azterketaren helburua proiektuak hizkuntzari lotutako alderdiak jasotzen dituen edo ez aztertzea da

ETXEBIZITZA

IZAERA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
1	Etxebizitzaren batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?		EZ		Oriotarren batez besteko errentaren gainetik izango da eraikiko diren etxebizitzaren prezioa. Kostaldeko herria izateak eragin handia dauka. Donostiarekin komunikazioa hobetzeak etxebizitzaren prezioetan eragin du.	Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2	Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	Bai			Herrigunean dago Dike, eta zerbitzuak gertu daude. Oinez 5 minutura daude. Ibaiko paseotik lotura egongo da baina goiko aldetik eraikinekiko lotura eskasagoa izango da.	Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du.
3	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	Bai			Hegoalderantz sortuko den espazio ireki nagusia zabala eta handia da.	
4	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko,		Ez		Ez da aurreikusi	

	atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?					
DIMENTSIOA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
5	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?		Ez			Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da,
6	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?	Bai			Aurreikusitako Etxebizitza tasatu eta babestutako etxebizitzetan udalak herritarrek lehentasuna izatea ezarri dezake.	herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
7	Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?		Ez		Bi fasetan egingo da, baina helburua ez da denboran luzatzea.	Jende etorrera asimilatzeak aukera lortzen da.
LEKUKOTZEA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
8	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?		Ez		Eremu bakarra da	Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

IZAERA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
9	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	Bai			Espazio zabalak eta hegoalderantz eraikiko dira. Aise iristeko modukoak dira.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du.
10	Oinezko sareak aurreikusi al dira?	Bai			Kale berri bat sortuko da. Oinez lehen dagoen bidetik erraz iristen da erdigunera.	
11	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	Bai			Ibaiarekiko harremana dute egingo diren espazioek, baina atzeko aldearekiko lotura pasabideen bidez egingo da eta mugatuagoa da.	
12	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?	Bai			Eremu zabala izango da eta erabilera askotarako aukerak emango ditu	Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesioa eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz.
13	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?	Bai			Adin guztietarako egokia den espazioa sortuko daiteke, espazioa ez dago guztiz definituta ordea.	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du

DIMENTSIOA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO		ERAGINAK HIZKUNTZAN
14	Tokiko beharretara neurritutako espazio publikoak aurreikusi al dira	Bai			Beharren neurrira egingo dira espazio publikoak.	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio.
LEKUKOTZEA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO		ERAGINAK HIZKUNTZAN
15	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?	Bai			Antzina dikea egon zenez, egingo diren indusketetan zerbait agertuko balitz katalogatu egingo da itsas museoarekin elkarlanean	Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta.
16	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?	Bai			Udalaren ekipamendua aurreikusita dago, erabilera ez dago zehaztuta ordea.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du.
17	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikusten al da?		Ez		Eremu bakarrean kontzentratuta dago	

OINARRIZKO EKIPAMENDUAK

IZAERA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGO KIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
18	Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?	Bai			Bai Kofradian eta bai Dikeko ekipamenduetan, kultura eta oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatuko da	Gizarte bizi eta kultur bizi sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
19	Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?	Bai			Kofradiako kudeaketa publikoa izango da (atal bat izan ezik) eta Dike eremuan kudeaketa publikoko ekipamendua egingo da.	Udalaren hizkuntza irizpideak ezartzen dira.
20	Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?	Bai			Kofradiako eremu bat pribatua izango da eta haiekin hitzarmena egitea aurreikusten da	Udalarekin hizkuntza irizpideak adosten dira.
DIMENTSIOA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
21	Tokiko beharretara neurritutako ekipamenduak aurreikusi al dira?	Bai			Kofradian egingo den ekipamenduak herrian dagoen beharri (areto ertainak) erantzuten dio. Dikeko ekipamendua zehaztu gabe dago zertarako izango den.	Erabiltzaileen hazkuntza jasagarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio.

LEKUKOTZEA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
22	Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?	Bai			Kofradia eremua beste ekipamenduetatik gertu dago. Dikeko ekipamenduak beste ekipamenduetatik oinez 5 minutura egongo dira.	Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du

JARDUERA EKONOMIKOA

IZAERA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
23	Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?			✓		Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu
24	Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?			✓		
25	Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?			✓		

26	Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?			✓		xumeagoan eragiten dio
27	Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?			✓		
28	Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?			✓		

DIMENTSIOA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
29	Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatuko al dira?			✓		Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurriratzeak ezagutza tasari positiboki eragiten dio

LEKUKOTZEA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
30	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi al da?			✓		Eraginaren intentsitatea txikitzen du

JARDUERA SOZIOKULTURALA

IZAERA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
31	Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea jasoko al du helburuen artean?	Bai			Kofradiako interpretazio zentroan bai, baita turismo planean ere	Bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatzen ditu eta prestigiatzen ditu
32	Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatuko al du?	Bai			Kofradiako interpretazio zentroa bertako izaerari lotuko zaio	Bertako izaera indartzen, prestigiatzen du
33	Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea izango al du helburuen artean?	Bai			Kofradiako interpretazio zentroa bertako izaerari lotuko zaio	Bertako kultur erreferenteak indartzen ditu

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
34	Bisitari kopuru jasangarria jasotzea sustatuko al du?	Bai			Ez da erakarpen polo handia izango	Erabilera eta ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
35	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko gunean jasotzea aurreikusten al du?			✓		Intentsitate maila jaisten laguntzen du

HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK						
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
36	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...	Bai			Udalaren egun dituen hizkuntza irizpideak aplikatuko dira	Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da.
37	Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari	Bai			Udalaren egun dituen hizkuntza irizpideak aplikatuko dira, ez	

	lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...				propio eremu horretarako erabakitakoak.	
NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
38	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...	Bai			Gaur egun irizpide eta laguntza orokorrak ezarrita daude eta eremu berrietan ere aplikatuko dira.	Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako kaltea murrizten da.

9. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Aztergai izan dugun HAPOn eremu etenaren aldaketa puntualean bi eremu oso ezberdin daude aurreikusita, Kofradia eta Dike. Ondorioz, ebaluazio batzordeak eremu bakoitzaren azterketa banatuta egitea erabaki du, eta hartutako erabakia zuzena izan dela ondorioztatu daiteke batean zein bestean ebaluazioaren emaitzak hizkuntzan izan dezakeen eraginaren aurreikuspena ezberdina izan baita.

Kofradia eremua aztertzerakoan bi esku-hartze edo erabilera hartu dira kontuan, bata erabilera anitzeko ekipamenduarena eta bestea interpretazio zentroarena. Erabilera anitzeko ekipamenduak herrian dagoen beharrianari erantzuten dio eta herritarrentzat interes oso handia edukiko du kokatuta dagoen lekuagatik. Adibidez, aurreikusita dagoen moduan ibaira begirako begiratokiarekin egiten bada, antzinako kofradian gertatu ohi zen moduan itsasorako joan-etorriei so egiteko talaia eta harreman sozialetarako toki aproposa izan daiteke.

Ekitaldi ertainetarako aretoak ere herrian dagoen gabezia beteko du eta kultur ekitaldi eta bestelakoetarako elkargunea izango da. Ondorioz, Kofradiaren erabilera horrek eragin positiboa izango du harreman sareetan. Interpretazio zentroak itsas bizitzari lotutako ondarea balioan jartzea eta sustapen turistikoa ditu helburu, besteak beste. Hortaz, herritarrez gain bisitariak ere gerturatuko dira, baina ez da aurreikusi bisitarien aparteko mugimendurik, berez ere etortzen direnenetzako eskaintza zabaltzea da asmoa eta hondartza-gunetik herrigunerako fluxua sortzea. Orioko Udaleko turismo planean euskara herriaren aberastasun modura jaso da, eta horrek ere isla izango du Kofradiako interpretazio zentroan. Hori guztia kontuan izanda Kofradia eremuak hizkuntzan izan dezakeen eragina garrantzi gutxikoa dela ebatzi da.

Dike eremuan etxebizitza berri kopuru handia egingo da hiru faseetan, hegoalderantz (ibairantz) dauden etxe multzoa lehenengo, eta ondoren iparralderantz dagoen etxe ilara, azkenik babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak egingo dira. Etxebizitzaz gain udal ekipamendua, erabilera tertziarioko lokalak, aparkalekuak eta eremu zabal irekia eta estalpekoa egingo dira. Eremu berri eta erakargarria izango da Dike ingurua, eta herriko mugimendu fluxuetan eta harreman sareetan eragina izango du ziurrenik. Etorriko diren biztanle berriek eta bertan irekiko diren denda/taberna edo bestelakoen ezaugarriak eragina izan dezakete hizkuntzan.

Argi dagoenez, etxebizitza horiek eginez gero biztanle berriak etorriko lirateke, eta aurrez Munto eremuan izandako joera errepikatuko balitz, batetik, oriotarrek beraiek hartuko lituzkete etxeak, eta bestetik, etorri berri gehienak inguruko herrietatik etorriko lirateke: Donostiatik, Zarautzik eta Aiatik batik bat. Etor daitezkeen horien ondorioz euskararen ezagutza -%3,57 jaitsi daitezkeela aurreikusi da. Ezagutzaren jaitsiera hori neurri zuzentzaileekin apaldu, eta ondorioz, galera txikia izatea lortu daiteke. Alderdi guztiak kontuan hartuta hizkuntzan izango duen eraginaren intentsitatea moderatua dela ebatzi du ebaluazio batzordeak. Baina, hainbat zantzu kezkarri ikusi ditu. Ezagutzan izan daitezkeen jaitsierarekin %70eko mugara gerturatuko litzateke eta langa horretara iristean erabilera jaisteko probabilitatea asko handitzen da; inflexio puntu baten aurrean egon gaitzke eta beheranzko joera markatu dezake. Muntoko esku hartzeak hizkuntzan izandako eragina azkenean nahiko ondo kontrolatu da eta jaitsiera neutralizatu egin da modu mailakatuan eraiki delako (10-15 urte), beheranzko joerari buelta eman eta herriak oraindik eusteko indarra daukala ikusi da. Baina, Dikeko etxebizitzak eraikitzearen eraginak egoera konprometitan jar dezake erabilera. Ebaluazioaren emaitza intentsitate



moderatuko eragina izango duela izan bada ere, duen antzekotasunagatik aurrez Munton gertatutakoa errepikatu daiteke, eta talde ebaluatzaileak behar-beharrezkotzat jo du gerta daitekeen kalte metatuaren eragina kontuan hartzea.

Funtsezko alderdien azterketan ikus daitekeenez, ez dago hazkuntza jasangarria jasota helburuen artean. Orioko udalerrria asko hazi da azken urteotan, etxebizitza asko eraiki direlako, kokapen eta komunikazio onak dituelako eta etxebizitzaren prezioa Donostia eta Zarauzkoa baino merkeagoa delako. Aurreikusitako etxebizitza guztiak eraikitzen badira, eta aurreko urteetako joerari eutsiz gero, biztanle kopurua asko haziko da. Irismen dokumentuan jasotakoaren arabera 801 biztanle berri etorriko lirateke.

Halaber, kontuan hartu beharreko joera da azken urteotan etxebizitzaren prezioak gorantz egin duela eta etxebizitzaren merkatuan lehen ez dauden aldagai batzuk ere agertu direla, inbertsio funtsak. Etxebizitza guztiak aldi berean egiteak merkatuak etxebizitza horiek asimilatzeke gaitasunik ez izatea ekar dezake, eta ondorioz, erosleen soslaia aldatu daiteke. Orain arteko eskaintzetan 30 etxebizitzek 2-3 urteko beharra ase izan du eta dimentsio horretara egokitu ez denean bestelako dinamikak sortu dira, eta erosleen soslaia aldatu da (adibidez hondartzako etxeetan).

Egingo diren etxebizitzak oriotarren batez besteko errentaren gainetik izango dute prezioa, gaitasun ekonomiko handikoak etorriko dira hasierako fasean. 2018an egindako txosten batean jasotzen zenez etxebizitza sozialen beharra dago, eta behar horri erantzuteko diru-sarreraren araberrako alokairu sozialeko etxebizitzak egitea irtenbide egokia izan zitekeela jaso zen (Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa Orion. Siadeco eta Orioko Udala 2018). Alokairu sozialerako etxebizitza eskaera eginga zuten 193 lagunek 2018an, behar hori aseko dute hein handi batean laster egitekoa diren Munto eremuko alokairurako 50 etxebizitzek. Dike eremuan babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak ere eraikiko dira, eta horietan herrian erroldatuak lehentasuna izango dute. Bestalde, etxebizitzak eraikitzeke aurreikusitako faseen helburua ez da denboran luzatzea, antolaketa eta etxejabeak birkokatzeke beharrari erantzutea baizik.

Espazio publiko ireki zabala izango du Dikek, adin guztietarako egokia den espazioa sor daiteke eta gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzea erraz dezake. Bai Diken eta bai Kofradian aurreikusitako ekipamenduek gizarte bizitza eta kultur bizitza sustatzen lagun dezakete. Kofradiako interpretazio zentroaren bitartez bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatuko dira, eta herri izaera eta hizkuntza prestigiatzen lagun dezake.

Hizkuntzaren funtsezko alderdiei dagokienez, neurri zuzentzaileak izan zitezkeenetako asko gaur egun dagoneko udalerrirako euskara planaren baitan garatzen dira: hainbat laguntza bideratzen dira, euskalduntzeke, errotuluak euskaraz jartzeko, merkatari eta ostalarientzat laguntzak... Horiez gain udalak zehaztuta ditu hizkuntza irizpideak eta horiek ezarriko dira bai exekuzio fasean baita ondoren ere.

Ondorio horiek kontuan hartuta, Ebaluazio Batzordean prebentzio neurri hauek ezartzea eta proiektuari gehitzea proposatu da.



PLANIFIKAZIOAN

- Muntoko alokairu etxebizitzak egin ondoren, alokairu etxebizitzaren beharrian zehatza neurtzea.
- Etxebizitza tasatuetan eta BOEtan erroldaren irizpidea ezartzea, Orioko erroldatuek lehentasuna izatea.
- Planifikazioan etxebizitzak eraikitzeko faseak denboran ahalik eta tarterik luzeenarekin egitea, neurri zuzentzaileak ezarri eta izan dezakeen eragina leuntzeko. Epeak luzatzea, ahal izanez gero gutxienez 10 urteko epean mailakatzeko.
- Aurreikusita dagoen moduan fase bakoitza osorik batera egin gabe, fasea bakoitzaren baitan ere programatzeko eta zatitzeko aukera aztertzea.
- Etxebizitza babestuak azken faserako ez uztea, lehenago egin ahal izatea, besterik ez bada 1. eta 2. faseen artean.
- Etxebizitza turistikoaren erregulazioa egitea plan orokorrean, etxebizitza turistiko kopura mugatzeko ahal den heinean. Atariko gehieneko kopurua eta solairu jakinetara mugatzea.
- Lokal komertzialen artean izan daitekeen neurri handiko lokal portzentajea ezartzea lokal handien kopurua mugatzeko. Adibidez azalera handiko lokalak gehienez %25 izatea.
- Dike gunearen eta herriaren arteko loturak hobetzea, bai bidegorri sarea baita oinezkoen bidea ere.
- Udalak kudeatuko dituen metro dotazional horietan kontuan izatea zer nolako ekipamendua jar daitekeen, adibidez euskaltegia jartzea onuragarri litzateke sor ditzakeen dinamikengatik.
- Dikeko etxeetan iparraldeko eta hegoaldeko etxebizitzaren artean komunikazioa hobetzea, pasabideak zabaltzea eta ahalik eta erakargarrienak izatea bideratzea.

PROIEKTUA GARATU AURRETIK ETA EGIN BITARTEAN

- Hizkuntza irizpideak ezagutaraztea obra egin behar duen enpresari udalaren aldetik, batik bat hizkuntza paisaiari lotutakoak.
- Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsi. Iragarkietan herriaren ezaugarriak ere sartu, herri eta ingurune euskalduna dela adieraziz. Proiektuen publizitatea euskaraz egingo dela bermatzea.

BIZTANLE BERRIAK ETORRITAKOAN

- Dikeko inguruan euskarari lotutako erreferentziak jarri, adibidez guneen arteko pasabideetan herriko erreferentziak jartzea.
- Turismo bulegoa alde zaharretik mugitzean geratuko den hutsunean udal ekipamendu erakargarria jartzea herritarrentzat herriko mugimendu fluxuak orekatzeko.



- Komenigarria litzateke udal erroldan hizkuntzen aldagaia ere jasotzea, etorri berrien ezagutzen dituzten hizkuntzen datu zehatza eduki ahal izateko, eta unean-unean joeraren berri jakiteko.
- Etorri berrientzako harrera linguistikoa egiteko protokoloa ezartzea: Gida, tutorea, hiztegia... Harrera soziokulturala egin: Herriko ohiturak azaldu integrazioa errazteko.
- Kofradia eremua oriotarrek ere bisitatzeko plangintza egitea.
- Kofradia oriotarren hizkerari prestigioa emateko gune/baliabide bilakatzea.
- Ireki daitezkeen establezimenduei begira irekitzeko prozedura administratiboan udalaren hizkuntza irizpideak eta laguntzak jakinaraztea. Laguntzetarako esteka jarri udal webguneko baimena bideratzeko gunean.
- Terraza ordenantzetan hizkuntza irizpideak ezartzea.
- Gaur egun dauden programak etorri berrien artean sustatu: aktibatu programa, kirol eskaintza, kultur eskaintza, eskulanetarako eskaintza, haurrei bideratutako eskaintza, ludoteka, udalekuak...
- Euskara planaren baitan etorri berriei begira hauek indartzea:
 - Mintzalagun edo antzeko programa indartu
 - Euskalduntze alfabetatzea sustatzeko dirulaguntzak, erraztasunak eman
 - Ahalduntze eskolak, hizkuntza portaeren inguruko saioak egin herritarrekin.
 - Ikasle etorri berrientzako errefortzu klaseak
 - Merkataritza ostalaritza lanketa indartu Dike gunean.
- Gurasoei bideratutako programak indartzea
 - Guraso ez euskaldunei bideratutako programak indartu: adibidez gurasoentzako euskalduntze taldeak sortzeko ahalegina egin



10. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea osatuko dute:

- Udaleko Euskara teknikaria
- Hirigintza Zinegotzia
- UEMAKo ordezkaria
- Udal arkitektoa

Jarraipen Batzordeak erabakiko du ezarritako neurri zuzentzaileen jarraipena egiteko beharrezkoa den bileren maiztasuna.

Batzorde honen jarraipenak bi mugarri nagusi izango ditu:

- HAPOn aldaketa puntualaren behin betiko onarpena baino lehen, ezarritakoak jaso diren aztertzeko
- HAPOn aldaketa puntualaren exekuzio fasean.

Etxebizitzak eraiki osterako ezarritako neurri zuzentzaileen jarraipena udalerriko euskara planaren bitartez egingo da





ORIOKO UDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Irismen-dokumentua

Plan partzialaren izena	Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa Dikeko eta Kofradiako eremu ez-jarraituan
Eragin-eremua	Orio
Teknikarien izenak	Jose M. Alkorta
Batzordearen izena	Hirigintza Batzordea
Planaren helburua	Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzea Dikeko eta Kofradiako eremu ez-jarraituan

Orioko Udalak HAP0aren aldaketa puntual horrek tokiko biztanleria-kopuruan / bisitari-kopuruan / egoera soziolinguistikoa izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Udal Euskara Zerbitzuari. Hori dela eta, beharrezko indizeen kalkulua egin du Euskara Zerbitzuak, aldaketak hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ba ote duen jakiteko.

Aldaketa puntual horren bidez aurreikusi daitekeen biztanle berrien kopurua 801ekoa da. Kalkuluak aterata, hauek dira indizeen emaitzak:

Euskararen proiektzio-indizea	-3,57
Hauskortasun-indizea	5,33
Bilakaera-indizea	-1,57

Emaitza horiek aintzat hartuta, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa egiteko Dikeko eta Kofradiako eremu ez-jarraituan, horren **HIZKUNTZA-INPAKTUAREN AZTERLANA EGIN BEHARRA DAGO**.

Irismen-dokumentu hau plan partzialaren espedienteati gehituko zaio, balioa izan dezan.

Orio, 2020ko urriaren 6a

Jabier Zabaleta
euskara-teknikaria

